

Joan den ostegunean, 2010eko martxoaren 11n, Osalaneko Kontseilu Nagusiaren urteko lehenengo bilera egin zen. Oso bilera garrantzitsua izan zen, Osalanen 2009ko jardueren memoria eta 2010eko Kudeaketa Plana aurkeztu baitziren, bertan onartzeko. ELAk aurkako botoa eman zuen bi kasuotan, ondoren azalduko ditugu arrazoiengatik.

I. EGOERAREN DIAGNOSIA

Enpresetako segurtasunaren eta lan-osasunaren egoera oso kezkarria da oraindik ere. Segurtasun-neurririk eza, LAPL (Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea) ez betetzea eta behin-behinekotasuna uneko egitateak dira. Egungo abagunean lanean dabilen biztanleria txikiagoa delarik ere, 2009an zehar eta 2010aren hasieran jazotako lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen gaineko datuek berretsi egiten dituzte aipatutako egitateak.

2009an, 77 langile hil ziren lan-istripuen ondorioz, eta aurtengotik iragandako zatian, 13 dira dagoeneko gertatutako istripu hilgarriak.

Hala eta guztiz ere, gaur, oraindik, erabat ezinezko zaigu iazko lan-istripuei eta gaixotasun profesionalen buruzko datuen irakurketa osoa egitea. Informazio hori ez zaigu eman, Osalaneko Kontseiluaren urteko lehenengo bilera orokor horretan, hilaren 11n. Orain arte, Kontseiluaren urteko lehenengo bilera egitean, aurreko urtean jazotako istripuei eta gaixotasun profesionalen buruzko datuak izan da ohikoa, Kontseiluak berak ondorioak atera eta ondorioztapenekin bat jardutearren.

Aurtengoan, ez da hori egiterik izan. Osalanek ez du istripuei buruzko txostena prestatu, eta, horregatik, ez daukagu ez guztizko zifrarik, ez gertatutakoaren inguruabar eta berezitasun nagusi eta erkideen berririk. Ostera ere, aitzakia irriarriekin informazioa ukatuz eragozten zaigu balorazioa egitea.

Bilerara eraman behar zenaren orde, eraikuntza sektoreko ezbeharren bilakaeraren inguruko beste txosten bat aurkeztu zitzaigun, beste hori prestatzea Kontseiluko kideetako batek ere eskatu ez bazuen ere.

Txosten hori zergatik prestatu duten, argi dago, gure ustez. Eraikuntza sektorea atzeraka dabil azken urteotan, eta bertan diharduten soldatakoak gero eta gutxiago dira, gaur egungo egoeraren eraginez. Dakigunez, sektoreko ezbehar-indizeen jaitsiera ere egoera horrexek ekarri du, noski.

Bada, Osalanek, sektoreko egiazko egoerari entzungor eginik estatistika-datu hutsetan oinarritu den txosten horren babespean, istripuen kopurua urritu eta egoera hobetu egin dela baieztatzen du, hori dena ugazabei, gobernuari eta horren politikei zor zaiela erantsiz. Guztiz onartezina da.

Aurten ere, argi geratu da Osalanen eta Eusko Jaurlaritzaren asmoa: datuak euren interesen alde manipulatzuz eta baloratuz euren kudeaketa negargarria babestea eta txalotzea, alegia. Informazioaren kalitate txarra sarritan salatu dugun arren, bistan dago administrazioak ez duela informazio-bideak hobetzeko ez asmorik, ez interesik.

Egiazko informazio osoa emanez gero, agerian geratuko litzateke laneko segurtasunaren eta osasunaren benetako egoera zein den; hau da, ezingo lituzkete ezkutatu abian jarri diren neurrien baliogabetasuna, porrota eta bilakaera hutsala, eta baliabide-urritasuna, besteak beste. Egia esatera, propagandak eta kezka-irudiak ez lukete ezertarako balio izango, eta datuek politika-aldaketa aldarrikatzen dugunoi emango ligukete arrazoia.

II. OSALANEN BALORAZIOA

A) 2009ko MEMORIA

2009an abiarazitako jarduketak eta horien emaitzak ez dira behar bestekoak izan. Hasieran aurreikusitako jarduketetako batzuk ez dira gauzatu, beste batzuk zirriborroan daude oraindik, eta burutu direnak aurreko urteetako en errepikapen soila izan dira. Hala ere, ez dute ez ondoriorik atera, ez azalpenik eman, horren inguruan.

Azpimarratu beharreko zenbait alderdi:

- Prestakuntza:
 - Amaituta egon beharko luketen eta oraindik amaitzeke dauden eskuliburuak.
 - Prebentzio-ordezkarik gutxiago prestatu dira (2009an: arautegiari buruzko 40 ikastaro eta 746 ikasle, eta alde teknikoari buruzko 43 ikastaro eta 754 ikasle; 2008an: arautegia jorrazteko 61 ikastaro eta 961 ikasle, eta zati teknikorako, 65 ikastaro eta 1.227 ikasle).
 - Eraikuntzako Ikasgela Iraunkorrean sektoreko langileek hartzen duten prestakuntza espezifikoa erabateko porrota da. Prestakuntza hartzen duten langileen kopurua ez da nabarmenki hazi, aurreko urtekoaren aldean: 2008an, 41 ikastaro eta 545 langile izan ziren, eta 2009an, 45 ikastaro eta 555 langile, baina, datuak antzekoak izan arren, Osalanentzako kostu ekonomikoa oso handia izan da 2009an.
- Ikuskaritza eta kontrola:

- Aurrez finkatutako ikuskapen-kopurua bete egin da, baina hautemandako arau-hausteei, arau-hausteen aktei eta ezarritako isunei buruz ez da ezertxo ere aipatzen.
- Aurreko urteetan baino kontrol eskasagoa egon da, kontu-ikuskapenei eta Prebentzio Zerbitzuei dagokienez.
- Teknikarien gaikuntzan ere ez da aurrerapen handirik igartzen: ez da ikuskapenen gehikuntza esanguratsurik ageri, eta emaitzak eskasak dira; 20 txosten burutu dira.

- Kontzientziaztea eta sentikortzea:

- Publizitate-kanpainak, propaganda. Ezta atal honetan ere ez dira iragarritako ekintza guztiak egin.
- Ikasgela mugikorra: 2009an, aurreko urteetan baino ikastetxe gutxiagotan egon da.
- Enpresentzako diru-laguntzak eta sariak.

Zentzuzko politika egiteko borondaterik eza propagandaz, kanpaina eta jardunaldien bidez eta enpresentzako diru-laguntza eta sariekin estali nahi dute, horiek guztiek, egungo egoera hobetzeari begira, ezertarako balio ez duten arren. Hori bai, ahal duten guztietan ematen dute ekintza horien berri, kezkatuta daudela eta zerbait egiten ari direla pentsarazteko asmoz.

- Beste alderdi batzuk:

- Garatu ez diren informatika-tresnak; ez dago estatistika-base fidagarriarik.
- Ez da udal eta aldundietako azpikontraten gaineko inolako kontrolik egiten.
- Administrazioak ugazaba diharduen aldetik, ez dute ezer aipatzen LAPLaren betetze-mailari buruz.
- Ikerketa gutxi; ofiziozko ikerketarik batere.
- Gaixotasun profesionalak azkar hautemateko sistemak porrot egin du.
- 2009an ere, argi ageri da Osasun Sailaren esku-hartze hutsala, prebentzioaren arloan.
- Osalaneko Kontseiluaren erabakiz sortutako lantaldeek ez dute funtzionatzen.

Ondorioz, 2009ko emaitza oso eskasa da: aurreikusitako neurriak, edo ez dira bete, edo betetzeko nahiz garatzeko daude, edo lehengo bide beretik jarraitzen dute. Ez da ondorioz atera egindakoaren egokitasunari, premiari edo baliozkotasunari buruz.

Horren arrazoia ezin sinpleagoa da: ez dago ez sistema hobetzeko, ez sistemaz aldatzeko inolako asmorik.

B) 2010erako PLAN ESTRATEGIKOA

Gauzak horrela, 2010ari begira, hots eta asmo handiko Kudeaketa Plan bat proposatzen dute. Aurreikusitako helburuak ez dira inondik ere errealistak, batez ere Osalanen aurtengo aurrekontua %8,4 murriztu dela kontuan hartuta.

Gizarte-elkarrizketarako mahai deiturikoari esleitzen zaio lehentasuna, eta beste urrats bat ematen da Osalan mahai horren zerbitzurako tresna bihurtzeko xederantz. Ildo horretan, kontzertazio-mahaian gutxiengo sindikalarekin adostutako ekintzen edo neurrien arabera Osalanen egitasmoan aldaketak egin ahal izatea proposatzen da. Zertarako onartu plana, gizarte-elkarrizketarako mahaian aldatu egin ahal izango dela jakinda?

Praktikan, zehaztu gabeko plana da, eta erabat ahazten ditu aurreko esperientzia negatiboak.

Orain arte funtzionatu ez duten hainbat neurri berriro proposatzen dira; enpresak ikuskatzeko atazak sendotu gabe jarraitzen du, eta motibazio-kanpainak planteatzen dituzte, enpresariak prebentzioa egin dezaten, alegia, legea bete dezaten. Gaixotasun profesionalei aurrea hartzeko eta garaiz detektatzeko egitasmo eraginkorrik ere ez da aurreikusten, xede horretarako, beste erakunde batzuen borondatezko lankidetzak egongo delakoan. Baina hori nola bideratu ere ez dute azaldu.

Edonola ere, Plana onartzeko unean, berriz geratu zen agerian Gobernuak, ugazaberia, CCOO eta UGT eskutik helduta doazela, elkarrengandik inoiz baino hurbilago, gainera, guztiek eman baitzuten aldeko botoa, kontrako boto bakarrak ELAren eta LABen izan zirelarik.

Hori bai, CCOOek baiezko botoa ematea baldintzapean jartzen du. Hau da, administrazioak, inolako eragozpen eta murrizketarik gabe, bermatu beharko du aurten estatu mailako Lan Arriskuen Prebentziorako Fundazioak emango dituen fondoei eskaera egiteko aukera.

Beraz, 2010erako proposatzen diren neurri eta politiken gainetik, CCOOek oraingoan ere Lan osasun eta Segurtasunaren egoera hobetzea baino bere finantziak defendatu du. Gogoratu, mutuen gainerako fondo hauek, Lan Arriskuen Prebentziorako Fundazioak osotasunean gestionatzen dituela, EAEko Gobernuak orain arte mantendu duen irizpidearen aurka. Egoera hau epaitegietan konpontzeaz dago.

III. ONDORIOZTAPENAK

1.- Gobernua eta ugazaberia ados daude, lan-harremanetarako nahi duten ereduari dagokionez. Behin-behinekotasuna, kontratazioko lege-iruzurra eta kontrolik gabeko azpikontratazioa ontzat ematen dituzte. Ez dago oraingo egoera gainditzeko inolako borondate politikorik.

2.- Lan-ezbeharrak gertarazten dituzten egiturazko zioen kontra borrokatzeko, ugazaberien interesen kontra jotzen duten neurriak onartu behar dira. Administrazioak (Lan Ikuskaritzak eta Osalanek), ordea, uko egiten dio bere eginbeharra betetzeari. Eusko Jaurlaritzaren kezka nagusia, orain ere, ugazaben pribilegioak babestea da, eta horrexegatik ez dio ezertan ere kontra egiten.

3.- Gobernuaren eta ugazaben interesen bateratasunak erakunde burokratizatu eta baliogabe bihurtu du Osalan. Lan-osasunaren arloko egiazko politikarik ezean, propagandaz eta edukirik gabeko kanpainez bete nahi dute hutsunea.

Ematen diguten informazioa hain eskasa denez, ezin dugu ezbeharren arrazoiak gaineko sakoneko baloraziorik egin. Ikuspuntu politikotik labaingarriagoak izan daitezkeen zenbait puntutan, berariaz ezkututzen dute informazioa.

4.- Gobernu honen hautua “gizarte-elkarrizketarako” mahaia lehenestea da arlo honetan, Osalan mahaiaren menpeko tresna bihurtuz. Eredu horrekin, kontzertazio-mahai deritzonako kide guztiak datoz bat. Horrek Osalan edukirik gabe utziz joatea dakar.

Era horretan, sindikatuen gutxiengoarekin egindako akordio birtual hutsak eramaten dira Kontseilura, finantzaketa lortzearen. Kontseiluaren azken bilera horretan argi ikusi denez, gizarte-elkarrizketarako mahaiko kideen arteko hitzarmena errendimendu osoz hasi da funtzionatzen, Osalaneko Kontseilu Nagusiaren barruan.

Gogora dezagun Estatuan istripuen arloan garatutako politika, “gizarte-elkarrizketan funtsatua, itzelezko porrota izan dela.

5.- Laneko segurtasun eta osasunerako politika publikoak errotik aldatzea exijitzen du ELAk. Behin-behinekotasuna desagerrarazteko eta kalitateko enplegu duina sustatzeko borondate politikorik ez dagoen bitartean, Osalanek ugazaben onura besterik bilatzen ez duen tresna baliogabea izaten jarraituko du.